

Altza: euskararekin anexionatu zain

Paradisu berdea izan zen Donostiako Altza auzoa. Zilargiñene aldean omen dago haltza gehien; ibai eta erreka bazterreko zuhaitza. Orain zementua da nagusi. Ehunka urtez herri euskalduna izan zen, baina XX. mendeko hamarkada gutxi batzuetan guztiz erdaldundu zen.

SAIOA LABAKA

EHUN METROKO altitudea duen muinoan dago Altza eta historikoki 14,5 km koadroko hedadura izan du. Donostiako, Pasaia, Errenteriako eta Astigarragako lursailetaraino iristen zen.

Aspaldikoak dira Donostiaren eta Altzaren arteko liskarrak. 1821. eta 1823. urteen artean lortu zuen Altzak ofizialki independentzia. Biztanle-entitate nahikoa zuela argi geratu zen, 150 baserri inguru zituelako bere lurretan, eta muga finkoak zedarritzeaz gain, udaletxea ere sortu zuten. 1910. urtean, berriz, Hiribildu Titulua lortu zuen, baina 1940. urtera arte baino ez zuen mantendu ahal izan. 1936ko gerrak eta Donostiarekiko tirabirak tartean zirela, ahulduta geratu zen Altzako ekonomia. Hala, Gipuzkoako hiriburuak egoera aprobetxatzen jakin izan zuen eta hainbeste desiraturiko anexioa lortu zuen.

Gaur egun zementuzko aurpegia du Donostiako auzoak, etxez josita-ko baso bihurtu zuten. Urbanistikoki eta sozialki aldaketa izugarriak jasan ditu Altzak. Etxeak eta dorreak eraiki zituzten nonahi eta nolanahi, errekatxoak lurperatu, zabortegeiak ezarri... Berdegune puska bakoitzari etekina atera zioten modu zabarrean. Autobideak eraikitzeke txanda iritsi zenean, berriz, hainbat baserri bota zituzten. Altza historikoko lurraldean 150 baserri zeuden eta egun 57k jarraitzen dute zutik. Badirudi hirigintzak landa eremua irentsi egingo



ARGIA

Altza berdea izan zen garai batean eta baita udalerrri ere. Orain zementuzko aurpegia du eta Donostiako auzoa da. Hainbat faktoreren ondorioz, tartean immigrazioa, hamarkada ahulak bizi izan ditu euskarak. Gaur egun hiztunak berreskuratu nahian dabil auzoa buru-belarri.




ARGAZKI PRESS

duela berriro Altzan. Izan ere, Donostiako Udalak aurrera eramane nahi duen Auditx Akular hirigintza egitasmoarekin ikusteko dago Altzaren itxura berria zein izango den.

50eko hamarkadan hazkunde demografiko garrantzitsua izan zuen Altzak immigrazioa zela eta. Antonio Cañamero Redondo historialariaren datuen arabera, Altza historikoan, 1950. urtean, 8.857

pertsona bizi ziren eta 1960. urtean, 16.413. 26 urte geroago, 1986. urtean, 44.384 pertsona. Bereziki, Coruña, Pontevedra, Cáceres, Salamanca eta Badajozko probintziatik etorri ziren etorkinak Altzara. Hori dela eta, eta beste faktore batzuen eraginez, Altzako euskararen egoera kezkarria zen garai hartan. Altzan euskararen egoera zein zen hobeto ulertzeko Joan Mari Irigoien idazle altzatarrarengana jo

Hizkuntza gaitasuna



eta haren ikuspegia bildu dugu: “Altzan giro euskalduna bazegoen arren, ez uste euskaraz asko hitz egiten zenik. Altzan erdarara jotzeko joera nabarmena zegoen. Francok gerra irabazi eta euskara debekatu zuenez, beldurra barruraino sartuta zuen jendeak. Ezagutzen dut euskara ikasi ez duen baserriko jendea, alde batek beldur zelako, arestian esan bezala, eta bestetik akonplejatuta sentitzen zelako, beharbada, kaletarrek ‘cashero’ztat hartuko zutenedo...”.

Normalizazioaren aldeko lehen urratsak

Esan bezala, 60ko hamarkadan euskararen egoerak kezka bizia eragin zuen eta hainbat altzatar euskara berreskuratzeko borrokan abiatu ziren. Lan horren fruituak izan ziren Herri Ametsa ikastolaren sorrera, ikastetxe erdaldunak euskalduntzea, helduak euskalduntzeko gau eskolak eskaintzea, euskaltegiak sortzea eta abar. 70 eta 80ko hamarkadetan Euskal Herriko gizarte mugimenduak egindako lan handiaren eraginez, herritarrak euskara berreskuratzeko beharraz jabetu ziren. Hala, 90eko hamarkadaren hasieran, euskararen ezagutzak aurrerapausoa eman zuen; gero eta guraso gehiagok eskolaratzen zituz-

ten haurrak D ereduan, euskaltegietan ikasle kopuruak gora egiten zuen etengabe, eta lan arloa euskalduntzeko lehen pausoak eman ziren.

90eko hamarkadaren amaieran egoera ez zen hain baikorra. Euskararen ezagutzan aurrerapausoak eman ziren, euskaldun gehiago ate-

“Kanpoko jatorria duen jendeaz inguraturik bizi naiz. Euren seme-alabei lehen hitza euskaraz egiten diet beti eta euskaraz jarraitzen didatela ikusteak poza ematen dit”

**Joan Mari Irigoien,
idazle altzatarra**

ratzen baitziren ikastetxeetatik eta euskaltegietatik, baina haien hizkuntza gaitasuna ahula zen eta euskaldun gutxi zegoen oraindik. Gainera, Altzan euskara erabiltzea ia ezinezkoa zen. Hori dela eta, Altzan euskararen berreskurapena bizkortzeko asmoz, hango euskalgintzako hainbat erakundek eta euskaltzale batzuek Altzako Bai Euskarari Batzordea osatu zuten 1999an. Euskararen Gizarte Era-

kundeen Kontseiluari jakinarazi zioten Bai Euskarari Akordioa eta Konpromiso Prozesua Altzan ere garatu nahi zutela. 2000. urtean Kontseiluak onartu zuen egitasmoan Altzak parte hartzea. Ekimen horren bidez herrietako enpresen, saltokien eta era guztietako entitateen eskutik, eta tokian tokiko udalarekin batera, konpromiso prozesua bideratu zen, herri mailako Euskararen Plan Estrategikoa eginez. Altzako Bai Euskarari Batzordea desegin eta Bizarrain Kultur Elkartea sortu eta legeztatu zuten 2001ean. Bizarrain elkarteak elkarlan hitzarmena sinatu zuen Donostiako Udalarekin eta Kontseiluarekin urte berean, eta harrezkero urtero berritu dute hitzarmena, Altzan euskara normalizatzearen alde lan egiteko. Zazpi urte daramatza elkarteak auzoko hainbat sektoretan euskara normaltasunez erabil dadin lanean.

Geroari begira

Altza euskalduntzeko ibilbide luzea aurreikusten da nahitaez. Orrialde honetako infograman ikus dezakezue Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistemaren arabera, Altzako hizkuntza gaitasuna nolakoa den. Dena den, Altzako ikastetxeetako haurrak –Herri Ametsa, Altza Herri Ikastetxea, Herrera eta Oletakoak– izango dira, hein batean, euskarari bizia eman diezaioketenak. Joan Mari Irigoien idazle altzatarrak hala esan du: “Kanpoko jatorria duen jendeaz inguraturik bizi naiz. Euren seme-alabei lehen hitza euskaraz egiten diet beti eta euskaraz jarraitzen didatela ikusteak poza ematen dit. Pentsatzen dut hemen dagoela esperantza. Denbora hobeak edo okerragoak etorriko dira, baina beti mantendu behar dugu hizkuntzaren zuzia piztuta. Eta geroak esango du”. ■

Babeslea: Errenteriako Euskara Zerbitzua



Errenteriako Udala

euskarazko komunikabideen alde

